araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Foru Aldundiak urtea amaitu baino lehen hasiko ditu Armiñóngo lotunea handitzeko bigarren faseko obrak

21 milioi euro inbertituko ditu AP-1 autobideak eta A-1 autobiak Vitoria-Gasteizerako norabidean bat egiten duten tokia bi erreikoa izatetik hirukoa izatera egokitzeko

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 17a.-Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du Armiñóngo lotunea handitzeko bigarren faseko obren lizitazioa. Oinarrizko aurrekontua 20.927.183 eurokoa da, BEZa barne, eta 30 hilabeteko epea dago obrak egiteko. Obrak urtea amaitu baino lehen hasiko dira, eta elkargune berria 2029an egongo da erabilgarri.

Armiñóngo lotunea handitzeko bigarren fasean, AP-1 autobideak eta A-1 autobiak Vitoria-Gasteizerako noranzkoan bat egiten duten bi erreikoa den gunea hiru erreikoa izango da, eta haren trazadura hobetuko da, zirkulazio gaitasuna handitzeko eta egunero dozenaka mila ibilgailu ibiltzen diren gune horren segurtasuna hobetzeko. Obra horiek 2025eko ekainean abiatu zen Burgos/Madrilerako noranzkoa hobetzeko lehen fasearen jarraipena dira.

Proiektuak AP-1en enborra bi erreikoa izatetik hirukoa izateko handitzea aurreikusten du, Vitoria-Gasteiz/Irun noranzkoan, 1.500 metroko tarte batean. Horretarako, Armiñóngo lotunearen ekialdeko biribilgunearen gainean dauden bi zubiak aldatu beharko dira, eta AP-1en azken zatiaren trazadura indarrean dagoen araudira egokitu beharko da, 120 km/h-ko proiektu abiadurarako, eta bihurgunea eta kontra bihurgunea ezabatuko dira lehengo ordainlekuko zabaltzan.

Gainera, obra horiekin, AP-1 eta A-1 errepideek bat egiten duten tokia hobetuko da, bost erreiak hirura murriztuz 1.500 metrotan zehar.

Obra horiek gauzatzean Armiñóngo lotunea handitzeko proiektua amaituko da. Lehenengo fasea 2024an eta 2025ean egin zen, eta 2025eko ekainean inauguratu zen, 5 milioi euroko inbertsioa egin ondoren. Lehenengo fasean, errei batetik bira handitu zen A-1 autobiaren eta AP-1 autobidearen arteko lotura, Burgos/Madrilerako noranzkoan, gune horretan Aste Santuan eta udako oporretan sortzen ziren auto ilarak konpontzeko.

Armiñóngo lotunea handitzeko bigarren fasearen kostua Espainiako Gobernuak finantzatuko du osorik, lehenengo fasearekin egin zen bezala, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak eta Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioak 2022an Armiñóngo lotunea handitzeko obrak bultzatzeko sinatu zuten hitzarmenean adostu bezala.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak Garaioko eta Landako parkeetan hondakin nahastuak eta ontzi arinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua adjudikatu du

Bi zatikiak behar bezala bereizteak eta biltegiratzeak aukera ematen du ondorengo tratamendua hobetzeko, material berreskuragarriak birziklatzeko eta aurrera egiteko hondakinak kudeatzeko eredu efizienteago eta jasangarriago baterantz

Gobernu Kontseiluak Servicios Urbanos de Limpieza y Adaptación SL enpresari adjudikatzea onetsi du Garaioko eta Landako parkeetan, Mendixurko parke ornitologikoan eta Ullíbarri-Gamboako inguruko eta Gorbeiako parke naturaleko bisitari gehien dauden eremuetan sortutako hondakin nahasiak eta ontzi arinak tratatzeko instalazioetara biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua.

Zerbitzu hori emateko, foru erakundeak 98.910 euroko inbertsioa egingo du urtean, BEZa barne. Gauzatzeko epea hiru urtekoa da, eta beste bi urtez luza daiteke.

Hondakin nahastuen eta ontzi arinen zatikiak biltzea funtsezko zerbitzua da hiri hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko. Bi zatikiak behar bezala bereizteak eta biltegiratzeak aukera ematen du ondorengo tratamendua hobetzeko, material berreskuragarriak birziklatzeko eta aurrera egiteko hondakinak kudeatzeko eredu efizienteago eta jasangarriago baterantz

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus